# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA ETA OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

**Zk-2156**

87/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko prezio publikoz ordain daitezkeen ondasun, zerbitzu eta ekintzak finkatzen dituen dekretua aldatzeko dena.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administraritzaren Ariel eta eta Herri Prezioei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legearen 143. atalean xedatzen denez, Euskal Autonomi Elkarteko prezio publikoz ordaindu daitezkeen ondasun, zerbitzu eta ekintzak dekretubidez finkatuko dira, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta kasuan kasuko organo edo erakundearen gain dagoen sailak elkarrekin proposamena egin ondoren.

143. atalean jasotako agindua abenduaren 28ko 337/1990 Dekretuaz bete zen, zeinak prezio publikoz ordaindu daitezkeen ondasun, zerbitzu eta ekintzen artean, besteak beste, zenbait sailek eta erakunde autonomok egindako argitalpenak finkatu baitzituen. Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Sailak egindako argitalpenengatik prezio publiko bat eskatzeko aukera ez zen jaso, ordea; eta hori ezartzeari beharrezko irizten zaio.

Bestalde, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Sailak egindako mintegi, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulagatiko prezio publikoa eskatzeko aukera ere jaso gabe dagoenez gero, hori ezartzea ere ezinbestekoa da.

Ondorioz, lehendakariaren eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko apirilaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Abenduaren 28ko 337/1990 Dekretuaren 1. eranskina aldatzea, testu hau izango duen 1. idazatia gehituz:

«1.– JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA.
– Argitalpenen salmenta.
– Mintegi, jardunaldi eta ikastaroetako matrikulak».

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO Y DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

**N°-2156**

DECRETO 87/1997, de 15 de abril, de modificación del Decreto por el que se determinan los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 143 de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dispone que los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos, se establecerán por Decreto, a propuesta conjunta del Departamento de Hacienda y Administración Pública y del Departamento que los preste o del que dependa el órgano o ente correspondiente.

El mandato del citado artículo 143 se cumplió mediante el Decreto 337/1990, de 28 de diciembre, en el que se determinan como bienes, servicios o actividades susceptibles de ser retribuidas mediante precios públicos, entre otros, la venta de publicaciones realizada por varios Departamentos y Organismos Autónomos; no estando recogida la posibilidad de exigencia de un precio público por la venta de publicaciones realizadas por el Departamento de Presidencia del Gobierno, resulta necesario su establecimiento.

Por otra parte, no habiéndose previsto la posibilidad de exigencia de un precio público por matrícula en seminarios, jornadas y cursos realizados por el Departamento de Presidencia del Gobierno, resulta igualmente necesario su establecimiento.

En su virtud, a propuesta del Lehendakari y del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 15 de abril de 1997,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Se modifica el Anexo del Decreto 337/1990, de 28 de diciembre, añadiendo un nuevo apartado 1 con el siguiente texto:

«1.– PRESIDENCIA DEL GOBIERNO.
– Venta de publicaciones.
– Matrículas de seminarios, jornadas y cursos».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko apirilaren 15ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de abril de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIA

### Zk-2157

1/1997 FORU ARAUA, martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Estatuan agintzen duen araudira egokitzearren 1996. urtean zehar onartutako Foru Dekretuak konbalidatzen dituena.

Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Jakinarazten du Gipuzkoako Batzar Nagusiek «Martxoaren 24ko 1/1997 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Estatuan agintzen duen araudira egokitzearen 1996. urtean zehar onartutako foru dekretuak konbalidatzen diteuna» onartu dutela, eta nik aldarrikatu egiten dut eta argitara dadin agindu, aplikagarri zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, 1997ko martxoaren 24a.

Diputatu Nagusiak,
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA.

Hitzaurrea.

Urtarrilaren 31ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 13.1 artikuluak baimendutakoarekin bat etorriz, 1996. urtean zehar hiru Foru Dekretu argitaratu dira, presazko arrazoiak direla medio, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Estatuan agintzen duen araudir egokitzearren.

Aiptu artikuluaren 2. apartatuak dioenaren arabera, prezeptu horren babesean onartu diren xedapenen berri Batzar Nagusiei eman behar zaie hauek konbalida ditzaten.

Tramite hori bete denez, aipatu epealdian eman diren Dekretuak konbalidatzeko Foru Araua egiten da.

## JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

### N°-2157

NORMA FORAL 1/1997, de 24 de marzo, de convalidación de los Decretos Forales de adaptación de la normativa fiscal del territorio Histórico de Gipuzkoa a la normativa vigente en el territorio común, aprobados durante el año 1996.

El Diputado General de Gipuzkoa

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 1/1997 de 24 de marzo, de convalidación de los Decretos Forales de adaptación a de la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la normativa vigente en el territorio común, aprobados durante el año 1996», a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardar.

Donostia-San Sebastián, a 24 de marzo de 1997.

El Diputado General,
ROMAN SUDUPE OLAIZOLA.

Preámbulo,

Conforme a lo autorizado por el artículo 13.1 de la Norma Foral 1/1985, de 31 de enero, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa se han promulgado durante al año 1996, por razones de urgencia, tres Decretos Forales de adaptación de la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la normativa vigente en el territorio común.

El apartado 2 del referido artículo establece la obligación de dar cuenta a las Juntas Generales, de las disposiciones aprobadas al amparo del indicado precepto, para su posterior convalidación.

Cumplido dicho trámite, procede dictar Norma Foral convalidante de los Decretos dictados durante el citado periodo.